



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: 2020ko abenduaren 21a, astelehena

Ordua: 12:00

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

EGUNEKO AZTERGAIAK

1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2020.11.30).

2.- MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIAREN TESTUINGURUAN GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK JASAN DITUZTEN BIKTIMEI LAGUNTZEKO, BIKTIMA HORIEN ERREPARAZIOA ETA AITORPENA TRAMITATZEKO, UZTAILAREN 28KO 12/2016 LEGEA ALDATZEN DUEN APIRILAREN 4KO 5/2019 LEGEAN OINARRITUTA, "EGIARI ZOR" FUNDAZIOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

3.- EUSKAL PRESSEN URRUNTZE POLITIKAREKIN AMAITZEAREN ALDEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ALKATEAK AURKEZTUTAKOA.

4.- EH BILDUK ZIZURKILGO UDALEAN EUSKO JAURLARITZARI UDALENTZAKO EZ OHIKO FUNTSA BEREZI GEIGARRIA ESKATZEKO AURKEZTEN DUEN MOZIOA.

5.- GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA ARRETA-SARE PUBLIKO ANTOLATU GISA DEFENDATZEARI BURUZKO MOZIOA EH BILDUK AURKEZTUA.

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: 21 de Diciembre de 2.020, lunes

Hora: 12:00

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

ORDEN DEL DÍA

1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (30.11.2020).

2.- MOCIÓN PARA LA ASISTENCIA, LA REPARACIÓN Y EL RECONOCIMIENTO DE LAS VÍCTIMAS DE VULNERACIONES DE DERECHOS HUMANOS EN EL CONTEXTO DE LA VIOLENCIA DE MOTIVACIÓN POLÍTICA, EN BASE A LA LEY 5/2019, DE 4 DE ABRIL, DE MODIFICACIÓN DE LA LEY 12/2016, DE 28 DE JULIO, PRESENTADA POR LA FUNDACIÓN "EGIARI ZOR".

3.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL A FAVOR DE ACABAR CON LA POLÍTICA DE ALEJAMIENTO DE LOS PRESOS VASCOS PRESENTADA POR EL ALCALDE.

4.- MOCIÓN PRESENTADA POR EH BILDU EN EL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL, PARA SOLICITAR AL GOBIERNO VASCO UN FONDO ESPECIAL ADICIONAL PARA LOS AYUNTAMIENTOS.

5.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU, RELATIVA A LA DEFENSA DEL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES COMO UNA RED PUBLICA ARTICULADA DE ATENCION.



ZIZURKILGO UDALA

6.- ALKATEAREN DEKRETUAK
JAKINARAZTEA (2020/286tik 2020/309ra).

7.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

Zizurkilen, 2020ko abenduaren 16an

Alkatea.


6.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE
ALCALDÍA (286/2020 al 309/2020).

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 16 de Diciembre de 2.020

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2020ko ABENDUAREN 21ean EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DIA 21 DE DICIEMBRE
DE 2.020**

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA/ALCALDE:

Iker Urruzola Aizpurua (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

José Antonio Sánchez Almaraz (G.M. Socialista – U.T. Sozialista)

José María Luengo Zapirain (EH Bildu)

Matilde Navas Los Arcos (EH Bildu)

Maria Jesus Zelaia Egiguren (E.A.J.-P.N.V.)

Ivan Lizarraga Galdos (EH Bildu)

Elixabete Bello Martija (E.A.J.-P.N.V.)

Francisco Javier Pellejero Saralegi (EH Bildu)

Trinidad Altimasberez Borja (E.A.J.-P.N.V.)

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hogeiko abenduaren hogeita bateko hamabi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. María Concepción Fernández Osés (U.T. Sozialista) zinegotzia ez da etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA
(2020.11.30).**


Udalbatzak, aho batez erabaki du 2020ko azaroaren 30ean egindako Bilkuraren Akta onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las doce horas del día veintiuno de Diciembre de dos mil veinte, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo la concejal María Concepción Fernández Osés (G.M. Socialista).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL
ACTA DEL PLENO ANTERIOR
(30.11.2020).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 30 de Noviembre de 2.020



ZIZURKILGO UDALA

**2.- MOTIBAZIO POLITIKOKO
INDARKERIAREN TESTUINGURUAN
GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK JASAN
DITUZTEN BIKTIMEI LAGUNTZEKO,
BIKTIMA HORIEN ERREPARAZIOA ETA
AITORPENA TRAMITATZEKO,
UZTAILAREN 28KO 12/2016 LEGEA
ALDATZEN DUEN APIRILAREN 4KO
5/2019 LEGEAN OINARRITUTA, "EGIARI
ZOR" FUNDAZIOAK AURKEZTUTAKO
MOZIOA.**

Osoko Bilkuren Aretoan "Egiari Zor" Fundazioko bi kidek aurkeztu duten mozioaren berri eman diote Udalbatzari, bere arrazoiak eta ezaugarriak azalduz.

Udalen babesa eskatzen dute, 5/2019 Legean xedatutakoa bete ahal izateko eta laguntza hori herritarrei komunikabideen bidez helarazteko, lege horretan giza eskubideen urraketak jasan dituzten pertsonen alde proposatutako neurrien irismena ezagutarazteko.

Jarraian, eta proposamena ikusirik, Udalbatzak bozketa egin du proposamena onartzeko. Emaita honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 10 (6 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 Sozialista U.T.arena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du. Mozio hau Akta honen I. Eranskin gisa jaso da.

**3.- EUSKAL PRESOEN URRUNTZE
POLITIKAREKIN AMAITZEAREN
ALDEKO ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA ALKATEAK
AURKEZTUTAKOA.**

2.- MOCIÓN PARA LA ASISTENCIA, LA REPARACIÓN Y EL RECONOCIMIENTO DE LAS VÍCTIMAS DE VULNERACIONES DE DERECHOS HUMANOS EN EL CONTEXTO DE LA VIOLENCIA DE MOTIVACIÓN POLÍTICA, EN BASE A LA LEY 5/2019, DE 4 DE ABRIL, DE MODIFICACIÓN DE LA LEY 12/2016, DE 28 DE JULIO, PRESENTADA POR LA FUNDACIÓN "EGIARI ZOR".

Presentes en el Salón de Plenos dos miembros de la Fundación "Egiari Zor", éstos dan a conocer a la Corporación la Moción que presentan explicando los motivos y características de la misma.


Solicitan el apoyo de los Ayuntamientos para que se pueda cumplir lo dispuesto en la Ley 5/2019 y que éste apoyo sea transmitido a la ciudadanía a través de medios de comunicación para dar a conocer el alcance de las medidas propuestas en dicha Ley a favor de las personas afectadas por vulneraciones de derechos humanos.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 10 (6 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 del G.M. Socialista).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, el Pleno, por unanimidad, acuerda aprobar la Moción de la Fundación "Egiari Zor", que se recoge en el Anexo I de este Acta.

3.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL A FAVOR DE ACABAR CON LA POLÍTICA DE ALEJAMIENTO DE LOS PRESOS VASCOS PRESENTADA POR EL ALCALDE.



ZIZURKILGO UDALA

Alkateak euskal presoek sakabanaketa-politikarekin amaitzearen aldeko adierazpen instituzionala aurkeztu du, eta aipamen berezia egin dio, urtero bezala, abenduaren 31n Villabona eta Zizurkil artean egingo den manifestazioari, denei bertara joateko deia eginez.

U.T. Sozialistak adierazi du aldeko botoa emango duela, Gobernuak presoak hurbiltzeko egiten ari den politikarekin bat etorritz.

E.A.J.-P.N.V.k ere aldeko botoa emango du; izan ere, sakabanaketa-politika presoek senideei eragiten die gehien, eta hori zigor gehigarri bat delako.

Ondoren, Udaltzarak aurkeztutako Adierazpena onartzeko dagokion bozketak egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 10 (6 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 U.T. Sozialistarena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

beraz, Udaltzarak, aho batez, aurkeztutako Adierazpena onartzea erabaki du. Adierazpen hau Akta honen II. Eranskin gisa jaso da.

4.- EH BILDUK ZIZURKILGO UDALEAN EUSKO JAURLARITZARI UDALENTZAKO EZ OHIKO FUNTSA BEREZI GEIGARRIA ESKATZEKO AURKEZTEN DUEN MOZIOA.

Aurkeztutako Mozioaren berri eman da. Mozio horretan, Eusko Jaurlaritzari eskatu zaio Europatik iristen diren funtsen % 30 udalei emateko, COVID-19aren krisiaren ondorioei aurre egiteko.

E.A.J.-P.N.V.k kontrako botoa emango duela adierazi du, Eusko Jaurlaritzari baitagokio funts horiek banatzeko modurik onenari buruz erabakitzea.

El Alcalde presenta la Declaración institucional a favor de acabar con la política de dispersión de los presos vascos, y hace especial mención a la manifestación que como todos los años se celebrará en día 31 de Diciembre entre Villabona y Zizurkil, animando a todos a acudir a la misma.

El G.M. Socialista manifiesta que votará a favor en consonancia con la política de acercamiento de presos que está llevando a cabo el Gobierno.

E.A.J.-P.N.V. también votará a favor ya que la política de dispersión a quien más afecta es a los familiares de presos para las que supone un castigo añadido.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para la aprobación de la Declaración presentada, con el siguiente resultado:


- Votos a favor: 10 (6 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 del G.M. Socialista).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, el Pleno, por unanimidad, acuerda aprobar la Declaración presentada, que se recoge en el Anexo II de este Acta.

4.- MOCIÓN PRESENTADA POR EH BILDU EN EL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL, PARA SOLICITAR AL GOBIERNO VASCO UN FONDO ESPECIAL ADICIONAL PARA LOS AYUNTAMIENTOS.

Se da cuenta de la Moción presentada, en la cual se solicita al Gobierno Vasco que se destine a los ayuntamientos el 30 % de los fondos que lleguen de Europa para hacer frente a las consecuencias de la crisis del COVID-19.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que votará en contra ya que corresponde al Gobierno Vasco decidir sobre la mejor forma de distribución de estos fondos.



ZIZURKILGO UDALA

U.T. Sozialistarentzat, lehenik eta behin, zer funts iristen diren jakin beharko litzateke, eta, gero, horien banaketa aztertu, bete beharreko beharren arabera. Hori dela eta, abstenitu egingo da.

Ondoren, Udalbatzak aurkeztutako Adierazpena onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 6 (6 EH Bildurenak).
- Aurrakoto botoak: 3 (3 E.A.J.-P.N.V.renak).
- Abstentzioak: 1 (1 U.T. Sozialistarena).

beraz, Udalbatzak, botoen gehiengoz,, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du. Mozio hau Akta honen III. Eranskin gisa jaso da.

5.- GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA ARRETA-SARE PUBLIKO ANTOLATU GISA DEFENDATZEARI BURUZKO MOZIOA EH BILDUK AURKEZTUA.

Alkateak Mozioa aurkeztu du, bertan gizarte-zerbitzuen sare publiko baten beharra planteatu da, eta ahal den neurrian, herritarrentzat hain oinarritzkoak diren zerbitzu horiek pribatizatzeke politikak saihestu dira.

E.A.J.-P.N.V.k adierazi du zerbitzu horien kudeaketa publikoarekin batera kudeaketa pribatua ere egon daitekeela, eta biak bateragarriak direla; horregatik, Mozioaren aurka bozkatuko du.

G.M. Sozialistak zehaztu du bi kudeaketak, publikoa zein pribatua, guztiz bateragarriak izan daitezkeela, eta garrantzitsuena kalitatezko zerbitzuak eskaintzea dela; beraz, ez du arrazoirik ikusten Mozio hau babesteko.

Ondoren, Udalbatzak aurkeztutako Adierazpena onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

Para el G.M. Socialista primero habría que conocer qué fondos llegan y luego estudiar el reparto de los mismos en función de las necesidades a cubrir. Por ello se abstendrá en la votación.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (6 de EH Bildu).
- Votos en contra: 3 (3 de E.A.J.-P.N.V.).
- Abstenciones: 1 (1 del G.M. Socialista).

por lo que, el Pleno, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada, que se recoge en el Anexo III de este Acta.


5.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU, RELATIVA A LA DEFENSA DEL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES COMO UNA RED PUBLICA ARTICULADA DE ATENCION.

El Alcalde presenta la Moción, en la que se plantea la necesidad de una red pública de servicios sociales, evitando en lo posible las políticas de privatización de estos servicios, tan básicos para la ciudadanía.

E.A.J.-P.N.V. manifiesta que junto con la gestión pública de estos servicios también puede coexistir la gestión privada de los mismos, siendo ambos compatibles, por ello votará en contra de la Moción.,

El G.M. Socialista puntualiza que ambas gestiones, tanto la pública como la privada, pueden ser perfectamente compatibles y que lo importante es que se ofrezcan servicios de calidad, por lo que no ve motivo para apoyar esta Moción.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado:



ZIZURKILGO UDALA

- Aldeko botoak: 6 (6 EH Bildurenak).
- Aurkako botoak: 4 (3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 U.T. Sozialistarena).
- Abstentzioak: 0.

beraz, Udalbatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du. Mozio hau Akta honen IV. Eranskin gisa jaso da.

6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2020/286tik 2020/309era).

2020ko azaroaren 26tik abenduaren 15era Alkateak sinatutako 286/2020tik 309/2020ra zenbakia duten Dekretuena. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Eguneko Aztergaietatik kanpo eta presazkoa dela aho batez adierazi ondoren, gai hau aztertu da:

7.- HERRIAN PINTADEI BURUZ MOZIOA, E.A.J.-P.N.V.K AURKEZTUTAKOA.

Mozioa aurkeztu da, eta bere edukia eta arrazoa E.A.J.-P.N.V.k azaldu ditu, eta udalerrri osoan dauden pintadak kentzeko eskatu du, bai fatxada publikoetan, bai pribatuetan.

U.T Sozialistak ere bat egin du eskaera horrekin, eraikin publikoetatik zein pribatuetatik kentzeko eskatuz.

Alkateak erantzun du Udalak ez dituela ezabatuko eraikin pribatuetakoa pintadak, eraikin eta leku publikoetakoak bakarrik.

Ondoren, Udalbatzak aurkeztutako Mozioa onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Votos a favor: 6 (6 de EH Bildu).
- Votos en contra: 4 (3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 del G.M. Socialista).
- Abstenciones: 0.

por lo que, el Pleno, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada, que se recoge en el Anexo IV de este Acta.

6.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (286/2020 al 309/2020).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 286/2020 al 309/2020 firmados por la Alcaldía entre el 26 de Noviembre y el 15 de Diciembre de 2.020, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

Fuera del Orden del Día y previa declaración de urgencia por unanimidad, se trata el siguiente tema:


7.- MOCION PRESENTADA POR E.A.J.-P.N.V. SOBRE PINTADAS EN EL PUEBLO.

Se presenta la Moción, cuyo contenido y motivo es explicado por E.A.J.-P.N.V., quien solicita se eliminen la cantidad de pintadas que hay por todo el municipio, tanto en fachadas públicas como privadas...

El G.M. Socialista se une también a esa petición, solicitando se eliminen tanto de los edificios públicos como de los privados.

El Alcalde contesta diciendo que el Ayuntamiento no va a borrar las pintadas existentes en edificios privados, solamente las de edificios y sitios públicos.

Seguidamente la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para la aprobación de la Moción presentada, con el siguiente resultado:



ZIZURKILGO UDALA

- Aldeko botoak: 4 (3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 U.T. Sozialistarena).
- Aurkako botoak: 6 (6 EH Bildurenak).
- Abstentzioak: 0.

beraz, Udalbatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako Mozioa atzera botatzea erabaki du. Mozio hau Akta honen V. Eranskin gisa jaso da.

Beste aztergairik gabe, eta hamabi orduak eta berrogei minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



- Votos a favor: 4 (3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 del G.M. Socialista).
- Votos en contra: 6 (6 de EH Bildu).
- Abstenciones: 0.

por lo que, el Pleno, por mayoría de votos, acuerda rechazar la Moción presentada, que se recoge en el Anexo V de este Acta.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las doce horas y cuarenta minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

Mozioa, motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei laguntzeko, biktima horien erreparazioa eta aitorpena tramitatzeko, uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzen duen apirilaren 4ko 5/2019 Legean oinarrituta.

Egiari Zor Fundazioak honako proposamen hau aurkezten dio Zizurkilgo Osoko Bilkurari, eztabaidatu eta bozka dezan:

MOZIOA

Zioen azalpena

Egiari Zor Fundazioa 2012. urteaz geroztik ari da lanean Estatuak eragindako edo sustatutako indarkeriak jasan dituzten biktimen eskubideen alde. Fundazioa osatzen dute erailak izan ziren pertsonen senitartekoek, eta zaurituak edo torturatuak izan ziren pertsonak.

2019ko irailaren 27an epea zabaldu zen giza eskubideen urraketan biktimak apirilaren 4ko 5/2019 Legearen babespean aitortzeko eskaerak aurkezteko. Lege horrek aldatu egin zuen uztailaren 28ko 12/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1979 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasandako biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Legearen helburua honakoa da: funtzionario publikoek beren eginkizunetan edo beren eginkizunetatik kanpo eragindako giza eskubideen urraketan biktimak aitortzea; taldean edo modu isolatuan, indibidualki eta kontrolik gabe jarduten zuten partikularrek eragindako eskubide urraketak aitortzea; eta, urraketa horien ondorioz, pertsonen bizitzan edo osotasun fisiko, psikiko, moral edo sexualean izandako eraginak aitortzea.

Laburki esanda, Legearen bidez aitortza jaso dezakete 1979tik 1999ra bitartean estamentu ofizialek praktikara eramandako edo sustatutako biolentziek EAEn eraildako, torturatutako edo larriki zauritutako pertsonak (edo urraketaren unean EAEn bizi zirenek).

Ehunka dira, milaka ziurrenik, denbora tarte horretan Estatuak praktikara eramandako giza eskubideen urraketak jasan zituzten pertsonak, eta aipatu legearen babespean aitortuak izateko egin beharreko kudeaketa ez da erraza.

Biktima izaera aitortzeko eskaera egiten duten pertsonak eskabidea aurkeztu behar dute. Hori euskadi.eus atarian elektronikoki bete dezakete, edo, bestela, eskabide-eredu normalizatua egoitza elektronikoko horretan bertan deskargatu eta Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzuko edozein bulegotan aurkeztu.

Eskaera horretan, giza eskubideen urraketa gertatu zen testuinguruaren deskribapena jaso behar da, eta biktima-izaera frogatzeko garrantzitsutzat jotzen diren txosten, ziurtagiri eta dokumentuak erantsi behar zaizkio. Hala ere, dokumentaziorik ez badago, inolako arazorik gabe egin daiteke eskaera.

Egia Zor Fundazioa prest dago behar duen orori izapideak egiten laguntzeko. Horretarako, nahikoa da harremanetan jartzea info@egiarizor.eus helbide elektronikora idatziz edo 944 045 363 telefonora deituz.

Berebiziko garrantzia du Euskal Herriko indarkeria testuinguruan gertatu diren giza eskubideen urraketa guztiak erabat aitortzeko bidean aurrera egiten jarraitzeak. Estatuak eragindako tragediaren inguruko egia osoa aitortzea, ezagutzea eta ezagutzera ematea ere ezinbestekoa da, bermatzeko giza eskubideen urraketan biktima bat bera ere ez dela geratuko dagokion babesik eta aitortzarik gabe.

Horregatik guztiagatik, Egiari Zor Fundazioak honako mozio hau onartzeko eskatzen dio Zizurkilgo Osoko Bilkurari:

1. Zizurkilgo Udalak aitortza adierazten die Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan zituzten biktimei, eta egokitze jotzen du 5/2019 Legeak eskainiko dien erreparazioa, biktima horiek duten egia, justizia eta memoriarako eskubideak egikaritzeko urrats garrantzitsua izanik.
2. Era berean, Zizurkilgo Udalak animatzen ditu giza eskubideen urraketan biktima gisara errekonozimendua eta erreparazioa jasotzeko eskaera aurkezteko borondatea duten udalerriko pertsonak prozedura hori martxan jartzeko eskabidea aurkeztera. Horrez gain, hori posible izan dadin, pertsona horiei aholkularitza eta laguntza emateko konpromisoa ere hartzen du Udalak.

3. Zizurkilgo Udalak jendaurrean jakinaraziko du hartutako erabakia, dituen ohiko komunikazio-bideak erabiliz, eskaera prozedurak abiatzeko interesa izan dezakeen pertsona oro informatuta egon dadin dagozkion eskubideen inguruan.

Moción de apoyo a la las víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política para la tramitación de su reparación y reconocimiento en base a la LEY 5/2019, de 4 de abril, de modificación de la Ley 12/2016, de 28 de julio.

Egiari Zor Fundazioa presenta al Pleno del Ayuntamiento de Zizurkil para su debate y votación la siguiente

MOCIÓN

Exposición de motivos

Egiari Zor Fundazioa trabaja desde el año 2012 a favor de los derechos de las víctimas que han sufrido las violencias practicadas o auspiciadas desde el Estado. Conforman la Fundación familiares de personas que han sido asesinadas y personas que han sido heridas o torturadas.

El 27 de septiembre de 2019 se abrió finalmente el plazo para presentar las solicitudes de reconocimiento de víctimas de vulneraciones de derechos humanos, amparadas por la LEY 5/2019, de 4 de abril, de modificación de la Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999.

Una Ley que tiene como objetivo: reconocer a víctimas de vulneraciones de derechos humanos producidas por personal funcionario público en el ejercicio de sus funciones o fuera del ejercicio de sus funciones; o bien particulares que actuaban en grupo o de forma aislada, individual e incontrolada; y que, como consecuencia de esas vulneraciones, se haya causado una afección a la vida o a la integridad física, psíquica, moral o sexual de las personas.

Es decir, pueden ser reconocidas aquellas personas asesinadas, torturadas o gravemente heridas en la CAV (o que estuvieran domiciliadas en la misma en el momento de la vulneración) por violencias auspiciadas o organizadas desde estamentos oficiales entre los años 1978 y 1999.



ZIZURKILGO UDALA

La realidad es que, son cientos, incluso miles, las personas que han sufrido vulneraciones de derechos humanos por parte del Estado durante este periodo, y la gestión a realizar para ser reconocidas al amparo de la mencionada Ley no es sencilla.

Las personas solicitantes del reconocimiento de la condición de víctima deben presentar un escrito de solicitud que pueden rellenar electrónicamente en euskadi.eus, o bien descargar el modelo normalizado de solicitud en esa misma sede electrónica y presentarlo en cualquier oficina de Zuzenean.

Esta solicitud debe contener una descripción de las circunstancias en que se hubiere producido la vulneración de derechos humanos, y se deben adjuntar a la misma de los informes, certificados y documentos que considere relevantes a efectos de demostrar la condición de víctima regulada en esta ley. Aún y todo, en caso de no contar con ninguna documentación, la solicitud puede hacerse sin ningún problema.

Desde Egiari Zor Fundazioa, estamos también dispuestas a ayudar en las tramitaciones a toda persona que lo requiera. Para ello, basta con ponerse en contacto con nosotras escribiéndonos a la dirección de correo electrónico info@egiarizor.eus o llamando al teléfono 944 045 363.

Es de vital importancia seguir recorriendo la senda hacia el pleno reconocimiento de todas las vulneraciones de derechos humanos que han ocurrido en el contexto de violencia del País Vasco. Se ha de reconocer, conocer y dar a conocer toda la verdad en torno a la tragedia generada también por el Estado, y lograr que ninguna persona víctima de vulneración de derechos humanos quede en desamparo.

Por todo ello, la Fundación Egiari Zor solicita al Pleno del Ayuntamiento de Zizurkil que apruebe la siguiente moción:


1. El Ayuntamiento de Zizurkil expresa su reconocimiento a las víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999 y acoge satisfactoriamente la reparación que se les dispensa en la LEY 5/2019, como un paso importante en la consecución de sus derechos de verdad, justicia y memoria.
2. Asimismo, el Ayuntamiento de Zizurkil anima a las personas de su municipio que consideren reclamar su reconocimiento y reparación en calidad de víctimas de



ZIZURKILGO UDALA

vulneraciones de derechos humanos, presenten la oportuna solicitud para abrir dicho procedimiento, comprometiéndose a prestarles asesoría y acompañamiento que se estime oportuno en dicho proceso.

3. El Ayuntamiento de Zizurkil dará repercusión pública a esta decisión por las vías habituales de comunicación que dispone, para que las personas que pudieran estar interesadas en iniciar estos procedimientos sean conocedoras de los derechos que les asisten.



ZIZURKILGO UDALA

II ERANSKINA - ANEXO II

ZIZURKILGO UDALA

2020 ABE. 16

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 1116

EUSKAL PRESOEN URRUNTZE POLITIKAREKIN AMAITZEAREN ALDEKO ERAKUNDE ADIERAZPENA

Udalbatza honek euskal presoek Espainiako Gobernuak aplikatzen dizkien politikei buruzko azterketa eta balioespena ezagutarazi nahi du.

Udalbatza honek honako lehen eskaera egiten du:

- Espetxeetako Lege Orokorrak aurreikusten duena bete dadila, askatasunaz gabetzen duten zigorrak bete daitezten norbere ingurunetik deserrotu gabe, birgizarteratzearen printzipioek adierazten duten moduan. Zentzu honetan, 2011 urtean ETAk jarduera armatua utzi zuenean irekitako denboraldi berriaren barruan honako hau adierazten du: beharrezkoa dela beste espetxe politika bat, presoek beren gizarte eta familiako erroak dituzten lekuetatik urrun zigorrak bete beharra ekidingo duena. Politika berri horrek presoak bere familiarekin harremanak izatea erraztuko du eta adin txikiko seme-alaben ongizateari begiratuko dio, gurasoek haiekin egoteko duten eskubidea defendatuz.


Euskal gizarteak bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustu garbia egin du. Hainbat modutako eta etengabeko eskaerak egin ditu, iraganeko logiken araberrako espetxe politika behin betirako gainditu dadin.

Ondorioz, Zizurkilgo Udalbatzak honakoa adierazten du:

1. 2011tik irekita dagoen errealitateari jarraiki, Espainiako Gobernuari eskatzen diogu euskal presoek legedi arrunt soila eta espetxe politika normalizatu bat aplikatzeko beharrezkoak diren urratsak ematea, iraganeko logiken araberrako legedian oinarritutako egoera behin betiko gaindituz.
2. Espetxeetako Lege Orokorrean aurreikusitakoa betetzea eskatzen dugu, askatasunaz gabetzen duten zigorrak betetzean deserrotzerik gerta ez dadin. Askatasunaz gabetzen duten zigorrak familia eta gizarte sustraiak dituzten lekuetatik urrun betetzea ekidingo duen espetxe politika bat ezinbestekoa jotzen dugu.
3. Premiazkotzat jotzen dugu egungo urruntze politikari amaiera ematea eta Covid-19aren egungo testuinguruan gure sostengua adierazten diegu honako egitasmo hau artikulatzera zuzendutako proposamen guztiei: espetxeratu guztiak orokorrean eta pertsona preso bakoitza, partikularrean, hurbil ditzatela beren familia ingurunetik hurbilen dauden espetxeetara. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Martutene, Basauri eta Zaballako espetxeetan birkokatzea dakar neurri horrek.
4. Helburu hau betetzeak modu erabakigarrian esku hartuko luke euskal gizartean eta politikan iraganarekin lotutako etapa bat ixten lagunduko luke. Gainera, aukera emango luke, biktima guztiak oroitzuz, bizikidetzat demokratikoan ardaztutako orainaldiko eta etorkizuneko denboraldi berri bat eraikitzeko.

Adierazpen hau, honako erakunde eta arduradunei helaraziko zaie:


- Pedro Sánchez, Espainiako presidenteari; Iñigo Urkullu, Lehendakariari; Maria Chivite, Nafarroako Presidenteari; Jean-René Etchegaray, Euskal Hirigune Elkargoko presidenteari.



ZIZURKILGO UDALA

- Aiztondo bailarako euskal presoak aurkitzen diren Espetxeetako Zuzendaritzari.

Azkenik, udalbatza honek datorren abenduaren 31n *"Orain presoak! Euskal Presoak Euskal Herrira"* lema izango duen eta Villabona eta Zizurkil arteko ibilbidea gauzatuko duen manifestazio bat antolatzea babesten du, herritarrei parte hartzeko deia luzatzen die eta Zizurkilgo Udala mobilizazioko antolatzaile eta deitzaile gisa agertzea onartzen du.



III ERANSKINA - ANEXO III



ZIZURKILGO UDALA

2020 ABE. 16

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 1228

ZIZURKILGO UDALA

EH BILDUK ZIZURKILGO UDALEAN EUSKO JAURLARITZARI UDALENTZAKO EZ OHIKO FUNTSA BEREZI GEHIGARRIA ESKATZEKO AURKEZTEN DUEN MOZIO

COVID19aren pandemiak sortutako krisiak gogor eragin du udalen egunerokotasunean, eta batez ere, udalek 2020rako eginiko aurreikuspenetan. Udalek beraien aurreikuspenak alde batera utzi eta beste lehentasun eta beharrizan batzuei egin behar izan diete aurre: herritarren osasun segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea, garbitasunean zerbitzu gehigarriak ezartzea, gizarte politiken arloan sortutako beharrizan berriei erantzutea, herrietako komertzio eta zerbitzuak laguntzea,... Alarma egoeraren ondorioz udal zerbitzu asko bertan behera uzteak ere galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.

Inbertsioak berrantolatzeaz gain, udalek diru sarreretan ere aldaketak jasango dituzte: batetik, tasa eta prezio publikoen bitartez lortzea aurreikusten zituzten sarrerak murriztuko dira; eta bestetik, foru finantza funtsaren bidez jaso beharko luketen diru kopurua ere asko murriztuko da.

COVID19aren krisiak behar berriak sortu ditu, eta erakunde publikoak horiei erantzutera behartuta daude. Udalak herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik, momentu honetan beraien gaitasun ekonomikoa bermatzea oso garrantzitsua da.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak udalentsako ez-ohiko funtsa berezia sortzea dagokio gutxienez ondorengo udal premiei erantzuteko:

1. Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko
2. Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzeko gastuei aurre egiteko
3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko
4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko
5. Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrizan berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)

Bestetik, Europar Batasunak ere funtsa bereziak iragarri ditu datozen urteetan izango ditugun erronkei aurre egiteko eta COVID19aren izurriteak areagotutako krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioak berreraikitzeke. Erronka horiei tokikotasunetik ere egin beharko zaie aurre, eta horretarako ezinbestekoa da udaletara funtsa horiek heltzea eta udalek (aniztasun osoa kontuan izanik dagokion ordezkartzearen bidez) funtsa horien lanketan zuzenean parte hartzea, Nafarroako Gobernuak ahalbideratu duen bezala.



ZIZURKILGO UDALA

Zizurkilgo udalbatzak ondokoa adosten du:


1. EUSKO JAURLARITZARI EAEko udalentsako ez -ohiko diru funtsa berezi bat sortzea eskatzen dio, udalek COVID19aren krisiaren ondorioz jasan behar dituzten gastu hauei aurre egiteko:

1. Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko
2. Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzeak gastuei aurre egiteko
3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko
4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko
5. Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrian berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)

2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, Europatik datozen funtsen %30 udaletara bideratua izan dadin bermatu dezala.

3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, Europatik datozen funtsen banaketa zein lanketa garatuko den guneetan EAEko Udalen aniztasun osoa ordezkaturia izango den ordezkari bidez parte hartze zuzena bermatu dezala.

4. Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio.



ZIZURKILGO UDALA

**eh
bildu**
ZIZURKIL

IV ERANSKINA - ANEXO IV

ZIZURKILGO UDALA

2020 ABE. 16

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 1227


Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzko Mozioa.

Zioa

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema “arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa”, “titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz” osatua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioa egiteko prozesuak argitara eman du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak jasan duen pribatizazio-politika bizia. Egoera hori askotan salatu bada ere, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioak agerian utzi du honen dimentsioa. 2011. eta 2018. urteen artean, foru-aldundiek, batez ere Arabakoak eta Bizkaikoak, adinekoentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan plaza berriak irekitzeari utzi zioten —eta, kasu batzuetan, sare publikoko plazen kopurua murriztu egin zen—, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara arreta eta zaintza eske hurbiltzen ziren herritarrei ‘txeke-zerbitzuak’ ematen hasi ziren. Hala, 2011n EAEko administrazioek 1.753 ‘txeke-zerbitzu’ ematen zituzten, baina 7 urte geroago, 2018an, kopuru hori 2,5 aldiz handitu zen, 4.489 ‘txeke-zerbitzu’ izateraino.

Zerbitzu publiko batek izan dezakeen pribatizazio-modurik muturrekoenak hartu duen dimentsioa erabaki politiko batean oinarritzen da: Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa ‘zerbitzu-txeke’ gisa instrumentalizatzea. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen esparruan sortutako prestazioa, helburu argi batekin: “Arreta eta zaintzarako zerbitzu publiko edo itundu bat eskuratzea ezinezkoa denean soilik”. Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, ordea, EAEn adinekoen arreta pribatizatzeke erabili da, arreta-sare publikoaren estaldura murrizten zen bitartean.




ZIZURKILGO UDALA



Aurreko guztia EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa egiteko prozesuan azaleratu da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko ibilbide-orri bat ezartzen zuen adostasun politiko zabal baten emaitza izan zen plan hori, eta horren baitan honako hau erabaki zen: “2011n Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak esleitutako plazak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari txertatutako zerbitzuetako plaza (plaza arrunt) bihurtu beharko” dira. Aldiz, 7 urtetan, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako plazen % 6,4 izatetik % 13,5 izatera pasa dira. Jakitera eman den I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio dokumentuak arrazoizkotzat aurkeztu nahi du inguruabar hori. Gainera, pribatizazio-politika horren zilegitasuna aitortzeaz gain, kontsideratzen du ‘zerbitzu-txekeak’ kudeaketa-eredu bat gehiago direla —kudeaketa zuzenaren edo kontzertazioaren parekoa—, eta balioa ematen dio administrazioek “plaza” gehiago irekitzeko duten gaitasunari, inbertsio nabarmen txikiagoarekin. Are gehiago, ebaluazioak politika pribatizatzaile hau beste sektore batzuetara zabaltzearen alde egiten du, hala nola bazterkeriaren edo desgaitasuna duten pertsonen arretara.

Aukera honek lotura estua du adinekoen arretan eta zaintzan irabaziak lortzea zilegi dela ulertzen duen ikuspegiarekin. ‘Negozio’ horretara 210 milioi euro baino gehiago bideratu dituzte administrazioek 2011 eta 2019 bitartean. Apustu politiko horrek geriatrikoetan espezializatutako eta atzerriko inbertsio-funtsekin lotutako talde handien ‘gosea’ piztu du; izan ere, azken urteotan gora egin dute EAEko adinekoen egoitza- eta eguneko arretaren errealitatean.

Jarduera hori gure arau-esparrutik kanpo dagoela alde batera utzita, are garrantzitsuagoak dira zaintzaileek eta zainduak egunerokoan dituzten ondorio larriak, eta, zoritxarrez, ezagunak dira: zaintzaren kalitatea murriztu egiten da; oso lan-prekarietate handia dakar berekin; erabat diluitzen da zaintzaren erantzukizun publikoa izatearen ideia oro; eta ekitaterik eza sortzen du arreta eta zaintza eskuratzean.




ZIZURKILGO UDALA



Covid-19ren pandemiak agerian utzi du egitura kolektiboak behar direla bizitza eta zaintzak konpontzeko. Lizuna da, hain zuzen ere, orain sakondu nahi izatea arreta eta zaintza beharrak merkantilizatzeko mekanismoetan.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera publikoa aldatzeak eztabaida soziala eskatzen du, eta erakundeok gure jarrera azaldu behar dugu. Horregatik guztiagatik,

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatua eta erantzukizun publikokoa dela adierazten du Zizurkilgo Udalak.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman pribatizazio-politikak legitimatzeko, bultzatzeko eta hedatzeko ahalegin oro arbuiatzen du Zizurkilgo Udalak.
3. Zizurkilgo Udalak uste du, arreta eta zaintzarako eskubide subjektiboko egoera batean, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren funtzioa mugatu egin behar dela aldi baterako prestazio edo zerbitzu bat eskuratzea bermatu ezin den egoeretara, baldin eta prestazio edo zerbitzu hori administrazio publikoek garatzen ari badira.



ZIZURKILGO UDALA


Moción relativa a la defensa del Sistema Vasco de Servicios Sociales como una red pública articulada de atención.

Exposición de motivos

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales establece que el Sistema Vasco de Servicios Sociales “constituye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública” integrado “por prestaciones, servicios y equipamientos de titularidad pública y de titularidad privada concertada”.

El proceso de elaboración de la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV ha sacado a la luz la intensa política privatizadora a la que ha sido sometido el Sistema Vasco de Servicios Sociales. Si bien han sido muchas las ocasiones en las que se ha denunciado esta situación, la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV ha puesto en evidencia la dimensión de la misma. Entre 2011 y 2018, las diputaciones forales, especialmente, las de Araba y Bizkaia, dejaron de abrir nuevas plazas en residencias y centros de día para personas mayores —e incluso en algunos casos se redujo el número de plazas de la red pública—, para comenzar a dar ‘cheques-servicio’ a la ciudadanía que se acercaba al Sistema Vasco de Servicios Sociales en demanda de atención y cuidado. Así, si en 2011 eran 1.753 los ‘cheques-servicio’ que daban las administraciones vascas, solo 7 años más tarde, en 2018, esa cifra se había multiplicado por 2,5, hasta los 4.489 ‘cheques-servicio’.

La dimensión que ha tomado la forma más extrema de privatización que puede sufrir un servicio público encuentra su causa en una decisión política: la instrumentalización de la Prestación Económica Vinculada al Servicio como ‘cheque-servicio’. Una prestación creada en el marco de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia con una finalidad clara: “únicamente cuando no sea posible el acceso a un servicio público o concertado de atención y cuidado”. En cambio, la Prestación Económica Vinculada al Servicio se ha utilizado para privatizar la atención de las personas mayores en la CAPV, mientras se reducía la cobertura de la red pública de atención.




ZIZURKILGO UDALA

Todo lo anterior ha aflorado en el proceso de elaboración de la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV. Un Plan fruto de un amplio consenso político que establecía una hoja de ruta para el despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales y en el que se acordó que “las plazas asignadas por la Prestación Económica Vinculada al Servicio en 2011 debieran tender a convertirse en plazas en servicios integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales”. En cambio, en solo 7 años, las Prestaciones Económicas Vinculadas al Servicio han pasado de ser el 6,4 % de las plazas del Sistema Vasco de Servicios Sociales a representar el 13,5 %. Una circunstancia que el documento de Evaluación del I Plan Estratégico dado a conocer trata de presentar como razonable. Aunque no solo se limita a reconocer la licitud de dicha política de privatización, sino que considera que los ‘cheques-servicio’ son un modelo más de gestión —equiparable a la gestión directa o la concertación— y pone en valor la capacidad que tienen para conseguir que las administraciones abran más “plazas” con una inversión sensiblemente menor. Aunque no se detiene ahí: la Evaluación apuesta por extender esta política privatizadora a otros sectores como la atención a la exclusión o las personas con discapacidad.

Esta opción está íntimamente relacionada con una visión que entiende lícito el lucro en la atención y el cuidado de las personas mayores. Un ‘negocio’ al que las administraciones han destinado más de 210 millones de euros entre 2011 y 2019. Esta apuesta política ha despertado el ‘apetito’ de grandes grupos especializados en geriátricos y ligados a fondos de inversión extranjeros, que han ido incrementado durante los últimos años su presencia en la realidad de la atención residencial y de día de las personas mayores en la CAPV.

Al margen de que esta actuación se sitúa fuera de nuestro marco normativo, más relevantes son las graves consecuencias en el día a día de quienes cuidan y son cuidadas son, por desgracia, conocidos: se reduce la calidad en los cuidados; lleva aparejada una altísima precariedad laboral; se diluye por completo cualquier idea de responsabilidad pública en los cuidados; y genera inequidad en el acceso a la atención y el cuidado.



ZIZURKILGO UDALA



La pandemia de la Covid-19 ha dejado en evidencia la necesidad de contar con estructuras colectivas para resolver la vida y los cuidados. Es obsceno que precisamente sea ahora cuando se pretenda profundizar en los mecanismos de mercantilización de las necesidades de atención y cuidado.

Alterar la naturaleza pública del Sistema Vasco de Servicios Sociales requiere un debate social en el que las diferentes instituciones debemos mostrar nuestra posición. Por todo lo cual,

1. El Ayuntamiento de Zizurkil manifiesta que el Sistema Vasco de Servicios Sociales constituye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública.
2. El Ayuntamiento de Zizurkil rechaza cualquier intento de legitimar, impulsar y extender las políticas de privatización en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.
3. El Ayuntamiento de Zizurkil considera que, en un escenario de derecho subjetivo a la atención y el cuidado, la función de la Prestación Económica Vinculada al Servicio debe limitarse a aquellas situaciones en las que no puede garantizarse temporalmente el acceso a una prestación o servicio y cuya provisión se encuentre en curso de desarrollo por parte de las administraciones públicas.



ZIZURKILGO UDALA

ZIZURKILGO EAJ-PNV UDAL TALDEA

V ERANSKINA - ANEXO V

MOZIOA HERRIAN PINTADAK

ZIZURKILGO UDALA

2020 ABE. 21

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia 1246

Trini Altimasberez EAJ-PNV udal taldeko bozeramaileak osoko bilkuran eztabaidatzeko mozio hau aurkeztu du udalerrian egindako pintadari buruz.

ZIOA

Etengabe ikusten dugu gure herriko kaleetan pintadak egiten direla, bai eraikin edo espazio publikoetan, bai pribatuetan.

Udal gobernuak, beti denbora bat igaro ondoren, eraikin eta espazio publikoetan egiten diren pintadak garbitzen ditu, baina ez eraikin pribatuetakoko pintadak. Baina, gainera, pintadak ez dira berehala garbitzen, hilabete batzuk behar izaten dira garbitzeko.

Urriko osoko bilkuran, talde sozialistaren ordezkariak alkateari galdetu zion elizaren atzealdeko pintadak garbitzeari buruz (espazio publikoa), eta erantzuna izan zen pentsatzen ari zela.

1990ko maiatzaren 9an Gipuzkoako Aldizakari Ofizialak publikatu zeun Zizurkilgo Udalerrian Kartel eta Pankarten Ezarpena arautzen duen ordenantza, eta bertan honako hau esaten du:

Pintaketak: Ezin ahal izango da pintaketarik egin, lukeen lema edozein dela ere. Pintaketatzak hartuko da edozein pintura-teknikaren bitartez egindako inskripzioak, kanpoko orma eta murru, espaloi, galtzada, zuhaiz eta bestelako elementu naturaletan.

Horregatik EAJ-PNV Udal Taldeak honako mozioa aurkezten du:

- 1.- Zizurkilgo pintada guztiak kentzeko eskatzen diogu Udal Gobernuari, Kartel eta Pankartei buruzko ordenantza betez.
- 2.- Udal gobernuari eskatzen diogu pintadak ahalik eta azkarren kentzeko.

Zizurkil, 2020ko abenduaren 16a

Trini Altimasberez